

Ehuneko edo portzentajea

Demagun ikastetxe batean mutilen % 45 eta nesken % 55 daudela.

% 45 eta % 55 **EHUNEKOAK** dira. Ikusten dugunez % ikurra erabiltzen da eta honela irakurtzen dira:

$$\% 45 = \text{ehuneko berrogeita bost}$$

$$\% 55 = \text{ehuneko berrogeita hamabost}$$

Portzentaje batek **ehunetik zenbat zati hartzen dugun** adierazten du eta **zatiki edo zenbaki hamartar** gisa adieraz daiteke:

$$\% 45 = 100\text{etik } 45 = \frac{45}{100} = 0,45$$

$$\% 55 = 100\text{etik } 55 = \frac{55}{100} = 0,55$$

Konturatu mutilak eta neskak elkartzen baditugu % 45 + % 55 = % 100 geratzen zaigula, hau da:

$$\% 100 = \text{GUZTIAK}$$

Nola kalkulaten dira ehunekoak?

Ehunekoak kalkulatzeko, zatiekin egiten genuen bezala egingo dugu:

Demagun, adibide moduan ipini dugun ikastetxean 800 ikasle daudela. Zenbat neska daude?

$$\text{Neskak} = \% 55 = 800\text{en } \frac{55}{100} = \frac{800 \times 55}{100} = 440 \text{ neska}$$

Emaitza bera lortuko dugu bider 0,55 zenbakiz biderkatzen badugu:

$$\text{Neskak} = \% 55 = 800 \times 0,55 = 440 \text{ neska.}$$

Azkenik, kalkulagailu gehienek tekla bat dute ehunekoak kalkulatzeko, baina guztiek ez dute berdin funtzionatzen; beraz, **metodorik errazena eta azkarrena zenbaki hamartarra erabiltzea da.**

Ehuneko egindako deskontuak:

Deskontua hasierako baliotik edo prezioetik **kentzen den** kopurua da. Dendetan, urteko garai batzuetan, ohikoa izaten da **beherapenak edo deskontuak** egitea. Ikus dezagun adibide batekin nola kalkulatu den deskontu bat:

Demagun ordenagailu batek 500 € balio zuela, baina % 15ko deskontua egiten dutela. Zenbat balioko du orain? Bi kalkulu egin beharko ditugu:

- Kalkulatuko dugu zenbatekoa den 500 €ren % 15 = $500 \times 0,15 = 75 \text{ €}$
- Deskontua egin ondoren ordaindu behar duguna = $500 - 75 = 425 \text{ €}$

Lasterbidea: hori bera azkarrago kalkulatu ahal dugu, pentsatzen badugu % 15 kentzean, % 85 kobratzen digutela (zenbaki hamartarrez 0,85 da); beraz, urrats bakar batean kobratuko digutena kalkula dezakegu:

- Kobratuko digute = $500 \times 0,85 = 425 \text{ €}$

Ehuneko egindako gehikuntzak edo igoerak:

Gehikuntza hasierako balioaren edo prezioaren **batuketa edo igoera** da. Batzuetan faktura bati, garaiz ez ordaintzeagatik, **errekargu** bat gehitu behar zaio, eta beste batzuetan, ikusten dugun prezioari **BEZ izeneko zerga** bat gehitu behar zaio, % 21 balioa duena. Ikus dezagun nola kalkulatu den produktu baten prezioa BEZa barne:

Demagun telebista batek BEZik gabe 300 € balio duela. Zenbat kostatuko da BEZa barne? Bi kalkulu egin behar ditugu:

- Kalkulatuko dugu zenbatekoa den 300 €-ren % 21 = $300 \times 0,21 = 63 \text{ €}$
- 63 euroak gehitzen baditugu, ordaindu beharko duguna = $300 + 63 = 363 \text{ €}$

Lasterbidea: hori bera kalkulu bakar batean kalkula daiteke, pentsatzen badugu % 21 gehitzean kobratzen digutena % 121 dela (zenbaki hamartarrez 1,21 da); beraz, urrats bakar batean kobratuko digutena kalkula dezakegu:

- Kobratuko digute = $300 \times 1,21 = 363 \text{ €}$

Birpasatu ondo kontzeptu horiek, eta ondo ulertzen dituzula uste duzunean, sakatu "**ONDO ULERTZEN DITUT EHUNEKOEN KONTZEPTUAK**" dioen botoian, eta gero "**¡TERMINADO!**" dioen botoian, hurrengo fitxarekin hasteko.

ONDO ULERTZEN DITUT EHUNEKOEN KONTZEPTUAK